# Alemaniako Cydonia sagardoa berezitu da 204 sagardoen artean

Iñigo Goñi Iradi 2025eko azaroaren 24a

Gehitu gaitzazu Googlen

Entzun




Antolatzaileak eta saridunak Basque Cullinary Centerren.

Astigarragako Zapiain sagardotegiak irabazi du 'Sagardo naturala' kategoriako sari nagusia.

Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, VI. Sagardo Forumeko Nazioarteko Sagardo Lehiaketako sari banaketa egin zen larunbatean Donostiako Basque Culinary Centerren. Mundu osoko dastatzaile ospetsuek 9 kategoriatan sailkatutako 204 sagardoak dastatu ostean, 175 domina banatu ziren: 58 urrezko domina, 81 zilarrezko domina eta 34 brontzezko domina.

Orotara 17 herrialdetako sagardoak aurkeztu ziren lehiaketara: Alemania, Austria, Txekia, Txile, Espainia, Estatu Batuak, Euskal Herria, Frantzia, Italia, Hungaria, Letonia, Lituania, Norvegia, Herbehereak, Polonia, Portugal eta Erresuma Batua.

Kategoria bakoitzeko banatutako sariez gain, Weidmann & Groh ekoizlearen Cydonia sagardoak 'Best of show' saria lortu zuen lehiaketako bereziena izateagatik. Astigarragako Zapiain sagardotegiak irabazi zuen 'Sagardo naturala' kategoriako sari nagusia.

Garraztasuna nagusi den sagardoetan Letoniako Semi Sweet Still Apple Cider izan zen nagusi. Mikatzetan EEBBetako Dabinett (Keeved) sagardoak irabazi zuen. Premium sagardo apardunetan, EEBBetako Cuveé Brut. Udardoetan garaile izan zen Alemaniako Alte Mostbirnen 2021. Zaporetako edo mistoan irabazi zuen Alemaniako Cydoniak. Berrietan Asturiaseko Gaitero Rosek irabazi zuen. Postretako sagardoetan Kataluniako Sira de Gel-ek eta azkenik kategoria irekian Euskal Herriko Vermú con sidra Kuartangok.

Nazioarteko Sagardo Lehiaketa VI. Sagardo Forum ekitaldiaren barruan egin zen.

**SAGARDO NATURALA**

**Dominak**: 8 urre Zapiain, Etxeberria Sagardotegia/Gurutzeta Sagardotegia, Sidra Cabueñes, Son Of Man Cider, Llagar Castañón, Egarri Edariak, Sidra Menéndez eta Petritegi. 18 zilar Zapiain, Son of Man -2-, Sidras El Lagar de Valleseco, Zeberio, Olletako Sagardoak, Sidra Menéndez -2-, Etxeberria Sagardotegia/Gurutzeta Sagardotegia, Isastegi, Viuda de Palacio, Sidrería Calonge, Seidir Tydecho, Sidras Niebla, Sidra Trabanco, Alorrenea Sagardotegia, Valle, Vallina y Fernández eta Sidra Angelón 9 brontze Egiazki Txopinondo, Son of Man, Olletako Sagardoak, Harismendia Etxaldea, Llagar Piñera, Mizpiradi Sagardotegia, RBLD Sagardoak, Sidrería Kuartango eta Petritegi.


**Irabazlea** Zapiain Euskal Sagardoa Premium 2024 (Zapiain Sagardotegia, Euskal Herria.

Gizartea Astigarraga Hernani

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez KronikaKide!

Erantzun



## El caserio

Hernani - Tabernak




## Allianz

Hernani - Aholkularitza



## Atxur

Hernani - Tabernak



## Feli 1945

Hernani - Etxeko Arropa













Asteagatik eskertuta

## Ikusienak



### Igone Etxeberria, Goiz Eguzkin gaur

Beñat Los Arcos
Ayerdi aza 04, 00:00 Hernani



### 4-5 urteko epean 365 etxebizitza berri egiteko hitzarmenak onartu ditu Astigarragako Udalak

Beñat Los Arcos
Ayerdi aza 03
Astigarraga



### Arriatsuko ikasle ohiak batu ziren, elkarrekin bazkaltzeko

Julen Borreguero
Fernandorena aza 04, 00:00 Hernani




### Jewolin Beltza

Iñaki Eguren
Etxabeguren aza 05, 00:00 Hernani



### Auzozaintza eta Bidea, Zaintzaldiagatik eta Burujabetzen Asteagatik eskertuta

Julen Borreguero
Fernandorena aza 05, 00:00 Hernani



### Igandean izango da Osiñagako azoka

Beñat Los Arcos
Ayerdi aza 04, 00:00 Hernani

## Kronika.eus

Dobera Euskara Elkartea
Larramendi kalea 11, Hernani
Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika[ABILDUA]kronika.eus

*Codesyntaxek garatua*



GIPUZKOA
Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

Hernaniko Udala
Astigarragako Udala
Ereñotzuko Auzo Udala
GOIZUETAKO UDALA
ARANOKO UDALA

TOKIKOM
Gertuko informazioa, euskaraz

Tokikom publizitatea

v18.2.0